

izango dugu orain. Oraingoak dira: Garazi Arrula idazle eta editorea; Iratxe Retolaza literatur kritikari eta idazlea; Cira Crespo historialaria; Sustrai Colina bertsolari eta idazlea; Mikel Urdangarin filosofoa; eta Xabier Landabidea, Deustuko Unibertsitateko irakaslea. Beste belaunaldi bat sartzen dugu, eta ziur nago ekarpena egingo diotela *Jakin-i*, eta igarriko dela gaitegietan. 263. eta 264. zenbakialak aurkeztuko dituzue gaur; monografito bikoitz moduan. Zein izango da gaia?

Kasu honetan, *Jakin* jardunaldien emaitza da. Gaia aukeratu nahi izan dugu jakinda diseinu berriarekin joango zen zenbakia izango zela. *Gatazkaren memoria*, *memoriaren gatazka* izena du. Gatazkaren zedarritzea egiten da aldizkari honetan; gatazka, gatazka nazional gisa definituz.

**Eta zer-nolako piezak jasoko ditu?**

Esaterako, memoriaren, boterearen eta gatazkaren arteko harremanaz Iñaki Sagardoik egiten du artikulua. Olatz Dañobeitiak bere tesiaren inguruko artikulua bat idatzi du: ezker abertzaleko emakumeen bizipenak jasotzen ditu, eta zer ekarpen egin dioten abertzaletasunari, militantziari eta feminismoari. Maider Galarzik ere bere tesiari lotutako tesu bat idatzi du; nolabait esanda, euskal gatazkaren irakurketa bitarra gainditzeko proposamen transfeminista egiten du. Samara Veltek, beste artikulua batean, gatazka *in-situ* ezagutu ez duten gazteek zein transmisio jaso duten eta zer uste duten jasotzen du. Azken horri lotuta, gaur egungo gazteek memoriari nola heltzen dioten jakiteko hiru begirada eskainiko dira: Onintza Legorburu eta Ane Alberdiren; Julia Diaz de Argoterena; eta Mikel Ibaruren eta Ekain Albitzerena.

**Hemendik aurrera, zer-nolako bidea ikusten diozu 'Jakin' itxuraldituari?**

Euskal pentsamendua beharrezkoa da. Guk geure burua kontatu eta pentsatu behar dugu, gure esperientzia bitaletik; bestela, besteek kontatuko digute zer garen. Beti ari gara kanpoko begiradaren markoan geure burua pentsatzen. Hori ikaragarritzko okerra da, eta galera handia. Euskal pentsamenduaren aldarrikapena egin behar da, bai eta pentsatzearen garrantziarena ere. Alde horretatik, *Jakin*-ek jarraitu beharko du horren plaza izaten. Horrek esan nahi du adi egoteko gaitasuna eta talentua behar dituela izan; zer gai dauden, zer korrante dauden azpiti, zer aldamiu dauden, zer aldamiu eraitsi behar diren... ●

Paul Urkijo zinema zuzendaria, *Irati* filmaren artea liburuaren eskuan. GORKA RUBIO / FOKU



## 'Irati' filmaren atzean dagoen artea eman du argitara Paul Urkijok

- Zirriborroetatik hasi eta 'Irati' grabatu osteko karteletaraino, tarteko guztia batu du zinema zuzendariak 'Irati filmaren artea' liburuan.
- Noizbait 'Errementari'-rekin gauza bera egitea ez du baztertu.

**Garbine Ubeda**

DONOSTIA— Argitaratze datek aurkakoa adieraz lezaketen arren, esan liteke lehenago jaio zela liburua, filma baino. Izan ere, *Irati filmaren artea*-k gerora film bihurtuko zen proiektuaren txostena du abiapuntua. Paul Urkijo zinema zuzendariak (Gasteiz, 1984) ongi daki zein garrantzitsua den dossier on bat: «Filmak begietatik sartzen dira, eta euskarri bisuala behar izaten da ekoizleak konbentzitzeko». *Irati* ez zen salbuespena izan; grabaketari ekin aurretik ere, liburuan bildu den materialetik mordoia zeukan Urkijok, bereziki marrazkiak eta irudi digitalak.

Bestalde, harritzekoa ere ez da, Urkijo Arte Ederrak ikasitakoa eta marrazkilaria ere badela kontuan hartuz gero. Gidoia idazteaz batera, marrazten aritzen da filmetan. Halaxe egin zuen *Errementari* filmean ere, eta orduan sortutakoa ongi gordea du, noizbait aukera sortzen denerako. Lan egiteko prozeduraz honako hau dio: «Koaderno multzo bat izaten dut aldean, eta hortxe apuntatzen ditut gauzak, eskuz. Gero, eskaneatu, eta ordenagailuan moldatzen ditut». Digitala zein fisikoa, dena gordetzen du.

Pertsonaien, paisaien zein eszenen garapena erazteko aurrez egindako marrazki, argazki, mapa, irudi digital eta zirriborroci graba-

zio bitarteko eta ondorengo irudi, kartel eta argazkiak batu zaizkie liburuan. Emaitza ikusgarria da. Berrehundik gora orrialdeko pieza mardula eta koloretua da *Irati filmaren artea*. Inprentatik jaso, eta eskuetan hartu zueneko ez dauka ahazteko Urkijok: «Hunkitu egin nintzen».

Fantasiatzko generoareen barruan bada halako liburuak ateratzeko ohiturarik, batik bat nazioartean. Urkijo bera zalea da oso: «Asko eta asko erosten ditut, adibidez *Eraztunen Jauna*-rena, edota Gillerme del Tororenak, haren zinema ere badelako oso bisuala». Haien arrastoiari jarraitu dio Urkijok, *Jrati*-n ere makina bat jende aritu delako lanean, eta ahalegin horrek merezi duela. Kasura, Nerea Torrijos jantzi diseinatzailea.

**Geruzak agerian**

Filmean oharkabeen pasa litezkeen xehetasunak jartzen ditu agerian liburuak: «Ikusleari saktasun bisual eta ikonografikoa ematea gustatzen zait, eta elementu sinboliko asko sartzen ditut». Jende askok esan omen dio: «Birritan ikusiz gero, askoz gauza gehiago deskubritzen dituzu filmean». Paperean datorrena, hortaz, filmeko geruza horien guztien gidatza ere hartzen ahal da.

Sitgeseko Beldurrezko eta Fantasiatzko zinema jaialdian eralutsi du liburua estreinakoz, eta han besoak zabalik hartu dutela esan

du Urkijok: «Altzor bat dela, pelikulari beste arnasa bat ematen diola, bilduma pieza bat dela eta antzekoak entzun ditugu han». Hitz horiek aparteko balioa ematen diela ere aitortu du, besteak beste, han estreinatu zelako *Irati* filma, duela bi urte.

**Liburuko atalak**

«Oso» miresten duen zinema zuzendari batek egin dio hitzurrea liburuari: Alex de la Igleziak. Murtziako (Espainia) Sombra zinema jaialdian ikusi zuen *Irati*, eta «txundituta» ateratzea zela helarazi zion Urkijori. Hitzurreari begira, «emozionatu» egiten dela aitortu du *Irati*-ren egileak.

Atalen artean esanguratsuenak dira pertsonaiei, jantziei, lokalizazioei eta izaki mitologikoei eskainitakoak orriak. Aipagarria, bestalde, Orreagako guduari eskainitako tartea: «Gudak zailak izaten dira zineman, aurrekontu alimalekoak behar izaten direlako, eta harago joan behar izaten da soluzio bisualen bila».

Filmean darabilten euskarak aparteko atala du liburuan: «Txiste asko dago horri buruz». Euskal Aktoreen Batasunak aurten emandako Besarkada sarietan, esate baterako, parodia bat egin zioten horri, eta gai horretatik komedia egiteari «oso polita» derituz Urkijok: «Zerbaitek bere parodia duen, munduan bere lekua hartu duen seinale delako». ●